

HABE

ENTZUMENA

2. TESTUA

Ondoren, Euskadi Irratian **Jakoba Errekondok** kalamua edo marihuanari buruzko informazioa emango du.

Entzun informazioa eta aukeratu erantzun zuzena.

Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu. Entzuten duzun bitartean, aukeratu erantzun zuzena.

Adibidea:

100. Jakobak dio Kataluniako Osasun Sailak plangintza jarriko duela martxan ...

- a. kalamuaren edo marihuanaren erabilera terapeutikoa ikertu eta legeztatzeko.
- b. kalamuaren edo marihuanaren erabilera orokorra ikertu eta legeztatzeko.
- c. kalamuaren edo marihuanaren antzinako erabilerak aztertzeko.

1. Noiz eta non hasi zen kalamua gaixoentzat erabiltzen?

- a. Frantzia Erdi Aroan hasi, eta ondoren Ingalaterran.
- 20 b. Ingalaterran eta Frantzia hasi, eta ondoren Ameriketan.
- c. Duela milaka urte Asian, eta ondoren Europan.

2. Ikerketen arabera, zertarako da ona, batez ere, kalamuaren erabilera?

- a. Gaixotasun larri batzuetan, mina kentzeko ez, baina bai pisuari eusteko.
- b. Gaixotasun larri batzuetan, mina kentzeko eta pisu arazoei aurre egiteko.
- c. Zenbait gaixotasun arinetan, gaixoak behar badu, argaltzeko eta lasaitzeko.

303. Zein da kalamua hartzeko erarik onena?

- a. Ohiturak ziurtatzen du hostoak erretzea dela onena.
- b. Kalamua edozein erataria har daiteke, inolako arazorik gabe.
- c. Kalamua infusioan hartzea, koipea duen zerbaitekin nahasita.

4. Kalamuaren ondorio onak ...

- 40 a. ez dira frogatu, ez gaixotasun larrietan ez bestelakoetan.
- b. gaixotasun larrietan frogatu dira, baina ez bestelakoetan.
- c. argi ikusi dira, ikerketarik izan ez duten gaixotasunetan ere.

5. Bartzelonako ikerketa batek frogatzen du...

- a. gaixo gehienek medikuari esan gabe erretzen dutela kalamua.
- b. gaixo gehienek kalamua infusioan hartzen dutela.
- 50 c. gaixoek badakitela nola hartu behar duten kalamua.

Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:

0- a	1	2	3	4	5
------	---	---	---	---	---